Jasangarritasuna errealitate bihurtuz: ingurumen-ekintza, aniztasun eta ekitate estrategikoa, eta gobernantza arduratsua

Gai-eremua: Enpresa-kudeaketa eta Jasangarritasuna

Gai-eremuko arduradunak:

- **Goizeder Blanco Zaitegi –** goizeder.blanco@ehu.eus (Euskal Herriko Unibertsitatea)
- **Itsaso Barrainkua Aroztegi –** itsaso.barrainkua@ehu.eus (Euskal Herriko Unibertsitatea)

Laburpena:

Gaur egungo erakundeek jasangarritasuna beren estrategiaren eta jardueren erdigunean kokatzeko erronkari egin behar diote aurre. Hala ere, benetako erronka ez da konpromisoak adieraztea, baizik eta jasangarritasuna ekintza zehatz eta neurgarri bihurtzea. Testuinguru horretan, ingurumen-kudeaketa arduratsua, aniztasunaren eta ekitatearen sustapena, eta gobernantza garden eta arduratsua funtsezko elementuak dira balio jasangarria sortzeko.

Track honek jasangarritasunaren inguruko ikertzaileen elkarrizketa eta hausnarketa sustatzea du helburu, erakundeetan jasangarritasuna estrategian, gobernantzan eta eguneroko jardunean txertatzeko erronkak eta aukerak aztertuz. Horren harira, jasangarritasunaren ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-dimentsioekin lotutako lan teoriko, enpiriko eta aplikatuak hartuko dira kontuan. Bereziki ongietorriak izango dira ondoko gaiekin lotutako ikerketa, esperientzia eta berrikuntzak:

Ingurumen-ekintza eta jasangarritasuna: Klima-aldaketaren aurkako estrategiak, karbono-isurien murrizketa, energia-trantsizioa, ekonomia zirkularra, baliabideen kudeaketa eraginkorra, biodibertsitatearen babesa eta erakundeen ingurumen-inpaktua aztertzen dituzten lanak.

Aniztasuna, ekitatea eta inklusioa: Genero-berdintasuna, aukera-berdintasuna, talentu aniztasunaren kudeaketa, lidergo inklusiboa, enplegu-politikak, gizarte-inklusioa eta erakundeetan aniztasuna eta ekitatea sustatzeko estrategiak jorratzen dituzten ikerketak.

Gardentasuna, informazio-ematea eta gobernantza arduratsua: Jasangarritasun informazioaren gardentasuna, interes-taldeekiko harremanak, araudi berrien ezarpena eta gobernantza-praktika onak lantzen dituzten ekarpenak.

Gako-hitzak:

Garapen jasangarria; gizarte-erantzukizuna; ingurumen-kudeaketa; klima-aldaketa; ekonomia zirkularra; biodibertsitatea, aniztasuna; ekitatea; inklusioa; jasangarritasun-informazioa.